


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek behar bezala funtziona dezan, baliabide egoki batzuk nahitaez garatuak izan beharko lituzke, hori, zuzen eta txukun aurrera joan ahal izateko. Baliabide horiek, beti ere ezberdinak izango dira, enpresa horren egitekoaren arabera. Flzken finean, denek ez dituzte helburu berberak izaten eta horretxegatik, orain aipatuko ditudan funtsezko baliabide ezberdinak, ez dira berberak izango guztietan. Hori bai, kontuan izan behar dugu, horietaz baliatu behar dugula; hau da, funtsezko elementuetan oinarriturik, geuk hasieran ezarritako balio proposamen horiek garatu eta bezeroengana iristea ahalik eta modu eraginkorrean. Hala beraiekin harreman zuzen eta egoki bat eskuratu eta diru sarrerak edukiko genituzkeen.

Lehen aipatu bezala, enpresa batek eduki ditzakeen funtsezko baliabideak era batekoak baino gehiagokoak izan daitezke, eta azkenerako, denek izaten dituzte baliabide apur horiek, maila altuagoan edota baxuagoan, beti ere bakoitzak izaten dituen interesen arabera. Horrela, honakoak izango liratekeen erakunde batek izan beharko lituzkeen funtsezko baliabideak:

- Baliabide fisikoak
- Baliabide intelektuala
- Giza baliabideak
- Finantza baliabideak



Geure enpresa zertan oinarritzen den, jada ongi baino hobeto jakingo duzue. Behin eta berriro esaten baitugu, gazte nahiz ez hain gazte diren pertsonen aisialdiak konpondu asmotan, pentsaturiko proiektu zentzudun eta polit bat dela. Hala, jendeak bertan behera utziriko jostailu nahiz liburu zaharrak bildu, geure lantegian konponketa egoki bat eman eta berriro ere salgai ipintzeko aukera ezin hobea bermatuko digu.

Beraz, oraingoan bai, geure lantegi edota enpresan begiak botata, baliabide fisikoak aztertuko bagenitu, lehendabiziko gauza esan beharko genukeena lantegiaren kokagunea izango zen. Taldean zuzen eta egoki adosturiko kontua izan denez, Lazkaoko flrruabarrena gozo tailerrean ipintzea erabaki dugu geure lantegi nahiz salerosketak egiteko gunea. Beraz argi utzi nahiko genukeena da, jostailu hauek ezin izango liratekeela online bitartez erosi, bertara joatea izango litzateke aukera bakarra, ez genuke nahiko eta inork eskaturiko produktu hori bidean ezbehar baten bitartez apurtzea, edota azken orrek egin dezakeen bidaiaren ostean jaso lezakeen kostu igoera bezeroak ordaintzea, jakin badakigu eta, enpresa honen helburu nagusienetakoa jende txiroei prezioak jaitsi eta alaitasuna ekartzea dela. Noski, baina jostailu guzti horiek ere nolabait batu beharra izango dira, eta horretarako, pentsatua dugun bezala, zabor

ontzien ondoan jostailuen biltegi moduko bat ipintzea izango litzateke geure konponbidea. Baina hori bai, biltegi horiek behar bezala itxita mantentzea behar beharrezkoa izango genuke, inolako lapurretarik izan ez dadin, horretxegatik, gaur egun organikoetako zabor ontziek izaten dituzten bezalako txartelak edukiaz baliaturik jardungo genuke. Baliabide fisikoekin jarraituz, geure jostailuak konpontzeko behar izango genukeen materiala ere bertan sartuko litzateke, hasiera batean geuk jardungo genukeen eta lan horretan buru belarri. Lan talde bikaina garenez, ez dugu inolako arazorik beharrezko orduak eskaintzeko jardun horri, planetaren egoera hobetu eta jendearen alaitasuna ekartzeko aukera izanda, lasai egon litezke bezero guztiak, ez baitugu inondik inora ere etsitzeko asmorik izango helburu guztiak burutu arte. Horretxegatik, ordenagailu bat eta telefono bat ere, funtsezko baliabide fisikotaz hartu beharko genituzke, kontu ekonomikoak aurrera eraman, eta aurrerago beste enpresekin eta nahi izanez gero geure bezeroekin harremanetan ipintzeko.

Esan bezala, proiektua aurrera eramateko prest egongo litzateke geure lantaldea, baina lanak txukun eta egoki egin ahal izateko, denok geure partetik zertxobait jartzea benetan garrantzizkoa izango zenez, lanean jarri aurretik lana ongi banatu behar izango genukeen. Baina noski, banaketa hori ez zen nolana hikoia izango, eta bertan agertuko litzazkiguke geure giza eta baliabide intelektualak. Geure lantaldea bikaina dela diodanean, arrazoiak ugariak direlako diot. Izan ere, denok dugu dohain bereziren bat enpresa aurrera eraman eta dugun lan hori gogoz egiten jarraitzeko. Andreiek esaterako, izugarritzko irudimena du eta jostailuen inguruko konponketa diseinuak egiten aparta da. Gaizkak aldiz, esku bikaina du erreminta ezberdinekin aritzerako unean, berehalako batean ematen baitie konponbidea arazo zaiena duten tramankuluei. Iker aztertuko bagenu, erraz konturatuko ginatkeen taldeak aurrera egiteko behar duen ordena eta antolaketa berak ipintzen duela, beti ere gehiegi estutu gabe, dena bere neurrian. Flaine neska jatorra eta alaia izanik, bezeroekin harreman zoragarri eta atsegin bat erraz lor dezake, horretxegatik, bera da izaten da normalean, jendeak dituen galdera guztiei erantzuten dien pertsona. Onintza izango genukeen azken kidea, eta honako hau ere langile fina izanik, ederto datorkigun pertsona da. Batez ere, telefono bidezko edota beste enpresekin negoziaketak egiterako unean, sen berezia baitu jardun horietarako.

Beraz argi geratu da, geure lantegiak kide aldetik ez duela inolako arazo berezirik, denok baikaude lanerako gertu. Baina noski, hori guztia aurrera atera ahal izateko kontuan hartu beharreko beste kontu garrantzitsu bat, finantzen baliabideak dira, baliabide hori eduki gabe ezin izango genukeen eta inora joan. Hasiera batean, tailer hori alokatu egin beharko genukeen eta geure aurrezki guztiekin ordaintzen joan pixkanaka pixkanaka. Ezken finean, geuk nahi dugulako ari gara sortzen honako proiektu eder bezain handi hau, baina horrek sakrifizio handia eskatuko liguke, ala ere, horrelako egoeretan horixe izaten da gutxienekoa. Flurrezkiak aipatu ditut bai, baina mailegu bat ere beharko genuke agian, egin behar duguna ez baita inolako txantxa.